

2024ean erregistratutako langabezia

2024ean zehar LANBIDEko bulegoetan 2.796 langabe ezberdin gehiago erregistratu dira, hazkundera balore erlatiboetan % 1,4koa izan da. 206.227 langabe ezberdin egon dira urtean zehar.

• SEXUA

Azken urtean, langabezia egoeran dauden enplegu-eskatzaille kopuruak gora egin du gizonen eta emakumeen artean. Lehenengoen artean % 1,2 igo da, eta bigarrenen artean % 1,6 (urtean 91.152 gizon eskatzaille eta 115.075 emakume). Aurten, eskatzaille gisa erregistratutako langabeen % 55,8 emakumeak dira, 2023koa baino 0,1 puntu gehiago.

• ADINA

Azken urte honetan, langabezian dauden eskatzailleen kopuruak behera egin du adin handieneko taldeetan, eta gora 35 urtetik beherakoetan. 16-24 urte bitartean igo da gehien langabeen kopurua termino erlatiboetan (+%4,9) eta balio absolutuei dagokienez 25-34 urte bitartean (+1.256 pertsona). Langabeen % 46,3k 44 urte baino gehiago ditu, % 32,9 ez da 35 urtera iristen eta gainerako % 20,8a 35 eta 44 urte bitartean dago. Laneratzeko zailtasunek gora egiten dute langabeen adina handitu ahala.

• JARDUERA EKONOMIKOA

2024an nabarmen igo da zerbitzuen sektoreko eskatzailleen kopurua, 5.059 pertsona gehiagorekin (+%3,43). Hezkuntzan (+1.379, +%17,1), osasun- eta gizarte-zerbitzuetan (+1.118, % 7,3 gehiago) eta ostalaritzan (+580, % 2,65 gehiago) ere gora egin du.

Azken urtean langabetuen kopurua murriztu delako gehien nabarmentzen den jarduera aurke enplegurik gabeko pertsonena izan da: -1.714 pertsona gutxiago, % 7,92ko beherakada. Langabeziak behera egin duen beste jarduera batzuk: eraikuntza (-321 pertsona, -% 2,93), manufaktura-industria (-% 269, -% 1,44), eta finantza-jarduerak (-% 141, - % 10,78) dira.

• LANGABEZIAREN IRAUPENA

Urte honetan, iraupen luzeko langabeen kopurua 6.855 pertsonatan murriztu da; aitzitik, iraupen laburrekoa 9.651 pertsonatan igo da. Balio erlatiboetan, luzaroko langabezian dauden eskatzailleen beherakada % 9,59koa izan da, eta iraupen laburreko langabezian dauden eskatzailleen kopurua % 7,31koa.

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Azken urtean, erregistratutako langabeen kopurua Araban soilik murriztu da; - % 3,45 eta 1.219 pertsona gutxiago. Bizkaian, aldiz, % 2,15 igo dira (+2.401 pertsona) eta Gipuzkoan % 2,85ko izan da hazkundera (+1.614 pertsona).

Euskal hiriburuen artean, Bilbon igo da gehien balio erlatiboetan eta absolutuetan erregistratutako pertsonen kopurua, % 2,49 eta 919 pertsona gehiagorekin. Donostian, urtean zehar langabezian dauden pertsonen kopurua % 1,97 igo da (+265 pertsona), eta Gasteizen, berriz, % 0,50 (+131 pertsona).

Langabeen kopuruak gora egin du eskualde guztietan, Ibaizabalen (-168 pertsona) eta Arabako Lautadan (-5) izan ezik. Langabeen kopuruan hazkunde esanguratsuak izan dituzten eskualdeak hauek izan dira: Ezkerraldea (+741), Bidasoa Beherea (+271) eta Uribealdea (+264). Balio erlatiboetan, igoerarik handienak Arabako Mendialdean (+%24,06), Goiherrin (+%7,72) eta Uribealdean (+%4,89) izan dira.

• LANGABEZIA - PRESTAZIOA

2024an, Lanbiden erregistratutako 39.971 langabek, aurreko urtean baino 9.822 gutxiagok, langabezia-prestazioren bat jaso dute. Gaur egun, 2024ko abenduan, langabe guztien % 31,8k dute gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. Guztizkoaren % 18,7k ordaindutakoaren arabera prestazioa jasotzen du, eta % 12,2k langabeziagatiko sorospenen bat.

Aurreko urtearekin alderatuta, langabeziagatiko estaldura-tasa 0,3 puntu jaitsi da.

• IKASKETA MAILA

101.102 langabek, guztien % 49k, derrigorrezko hezkuntzako ikasketak dituzte. Azken urtean, oinarrizko prestakuntza-maila hau duten langabetuak 1.690 gutxiago izan dira (-% 1,64), eta ikasketak-profil horrek bakarrik egin du behera langabe kopuruan.

Batxilergoa egin duten langabeak langabetu guztien % 8,6 dira. Azken urtean % 3,4 igo dira (+585 pertsona).

Lanbide Heziketako ikasketak dituzten langabetuak 56.400 dira, guztizkoaren % 27,3. Profil horretan hazi da gehien langabeen kopurua balio absolutuetan: 2.414 pertsona gehiago (% 4,47ko igoera).

Azkenik, % 15ek (30.959 pertsona) unibertsitate-ikasketak ditu. Ikasketak-maila hori duten langabeek % 5,05 egin dute gora urtean (1.487 pertsona gehiago), eta balio erlatiboetan gehien hazi den profila da.

• JATORRIA

Langabe guztietatik, 38.734 (% 18,8) atzerritarak dira. 2023arekin alderatuta, atzerritarren artean langabezia % 4,3 igo da, eta bertakoen artean, berriz, gutxiago hazi da, % 0,72 hain zuzen ere.

Atzerriko langabeen % 36,5 Latinoamerikatik datoz, % 26,2 Ipar Afrikatik, % 14,5 Europako Esparru Ekonomikotik, % 10,7 Saharaz hegoaldeko Afrikatik eta % 6,1 Asiatik.

Saharaz hegoaldeko Afrikatik ez beste eremu guztietatik etorritako langabeen kopuruak egin du gora, 45 langabe gutxiago baitaude (-%1,08). Latinoamerikatik etorritako pertsonen artean igo da gehien langabezia, 1.364 pertsona gehiagorekin (% 10,67ko hazkundera); ondoren, Afrikako iparraldetik datozenak daude, 102 pertsona gehiagorekin eta % 1,01eko hazkundera erlatiboarekin.

Lan-eskatzaile langabeak 2024ean

	2024	2023	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	91.152	90.109	1.043	1,16%
EMAKUMEZKOAK	115.075	113.322	1.753	1,55%
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	24.519	23.385	1.134	4,85%
GIZONEZKOAK	13.866	13.021	845	6,49%
EMAKUMEZKOAK	10.653	10.364	289	2,79%
25-44 URTE:				
GUZTIRA	86.174	85.801	373	0,43%
GIZONEZKOAK	36.573	36.637	-64	-0,17%
EMAKUMEZKOAK	49.601	49.164	437	0,89%
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	95.534	94.245	1.289	1,37%
GIZONEZKOAK	40.713	40.451	262	0,65%
EMAKUMEZKOAK	54.821	53.794	1.027	1,91%
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	10.625	10.946	-321	-2,93%
INDUSTRIA	19.773	19.969	-196	-0,98%
ERAIKUNTZA	152.718	147.659	5.059	3,43%
ZERBITZUAK	19.934	21.648	-1.714	-7,92%
AURREKO ENPLEGURIK GABE				
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	58.168	56.554	1.614	2,85%
BIZKAIA	113.944	111.543	2.401	2,15%
GIPUZKOA	206.227	203.431	2.796	1,37%
EAE	91.152	90.109	1.043	1,16%